

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala**

Gizarte Ongizate Sailak eman behar dituen diru-laguntzei buruzko arauak onetsi.

Portugaleteko Udaltzatza, 2019ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran honako arau hauek onetsi ditu:

PORTUGALETEKO UDALAREN GIZARTE ONGIZATE SAILAK EMAN BEHAR DITUEN DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAUAK

1. BALIABIDE EKONOMIKO GUTXIKO PORTUGALETETARRENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

1. artikulua. — Diru-laguntzen xedea

Irizpide hauen xedea da, zarama eta estoldaren udal tasak eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko diru-laguntzak arautzea.

2. artikulua. — Onuradunak

Diru-laguntzok jaso ahal izango dituzte Portugaleten erroldaturikoek, baldin eta baliabide ekonomiko gutxi badute eta datozen artikuluetako eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. — Onuradunek bete beharreko eskakizunak

1. Portugaleteko herritarra izatea, udal erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna izanik.

2. Eskarera adierazitako bizilekuan bizi izatea. Bizileku hori diru-laguntza ordaintzeko ordainagirietan ere agertu behar da.

3. Familia osoaren dirusarrera garbiek, edozein kontzeptutakoek, ez dute gaindituko familia batek, Dirusarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/08 Legearekin, Etxebizitzako Prestazio Osagarrirako 2/2010 eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako 147/2010 Dekretuekin eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuarekin bat etorritik jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa. Hona hemen zenbateko horiek:

Familia-unitateko kide kopurua	Urteko kopurua (€)	
	Orokorra	Pentsioduna
1	15.900,24	18.068,40
2	20.417,28	22.585,44
3	22.585,44	24.392,40
4	25.000,00	26.892,00
5 edo gehiago	27.500,00	29.392,00

4. Ohiko etxebizitza eta trastelekua albo batera utzita, onuradunak ez du izango edozein motatako eta ageriko balioko beste ondasunik.

Ulertuko da onuradunak ageriko balioko beste ondasunak dituela, familia-unitateko kideen ondasunen batuketak (kapital higikorra) honako zenbatekoak gainditzen dituen.



Familia-unitateko kide kopurua	Urteko kopurua (€)	
	Orokorra	Pentsioduna
1	31.608,00	35.918,00
2	40.587,00	44.898,00
3 edo gehiago	44.898,00	48.490,00

4. artikulua. — Diru-laguntza ezesteko kausak

1. Zergak eta udal tasak ordaindu ez izatea.
2. Udal diru-laguntzetan edo udal eskumeneko beste kontu batzuetan aurrean iruzurra egin izatea.
3. Oso agerikoa izatea onuradunak nahiko baliabide ekonomikoak dituela, aurkeztutako agirietan azaldu ez bezala.
4. Eskaerak behar bezala ez betetzea, gezurrezko datuak azaltzea edo datuak isiltzea.

5. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa

Arau hauekin bat etorritz ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa, diru-laguntzen titularrei edo horien ezkontideei, edo, behar izanez gero, bizi diren etxebizitzaren jabeen bidaltzen zaizkien ordainagirietan agertzen dena izango da.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko diru-laguntza ohiko etxebizitzagatik edo familiaren etxebizitzagatik (hau da, errolda agirietan agertzen denagatik) bakarrik emango da.

Edonola ere, diru-laguntzak aurrekontuaren menpe egongo dira beti eta eskatzen den kopurua urteko aurrekontuaren baino handiagoa bada, hauxe egingo da:

- Lehenengo eta behin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko zenbatekoa gutxitzea; gutxitze hori gehienez diruz laguntzen diren gastu guztien %30koa izango da;
- Hala ere aurrekontua gainditzen bada, lehentasunez emango zaizkie ezarritako irizpideen arabera dirusarrera gutxien duten familia-unitateei.

6. artikulua. — Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, arau hauek argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
2. Eskaerak Udalaren Gizarte Ongizate Sailera bidaliko dira, eskabide-orria behar bezala beteta. Horrekin batera, arau hauen 7. artikulua zehazten dituen agiriak ere aurkeztu beharko dira.
3. Eskaerak Gizarte Ongizate Sailak baloratuko ditu eta, horren ostean, Udalaren Gobernu batzordeari aurkeztuko dizkio, onar ditzan.
4. Prozedura ebazteko epea gehienez hiru hilabetekoa izango da, Udalak diru-laguntzok eskatzeko ezarri duen epea bukatzen den egunetik hasiz zenbatuta.
5. Ebazteko epe hori igarota, berariazko ebazpenik eman ez bada, ulertuko da diru-laguntza ezetsi dela.

7. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskatzaileak honako agiriak aurkeztuko ditu eskabide-orriarekin batera:
 - a) Eskatzailearen eta, behar izanez gero, familia-unitateko kide guztien NANen fotokopiak edo familia-liburuaren fotokopia.
 - b) Familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren ziurtagiriak, nominak, pentsioak, langabezia- prestazioak/sorospenak, DSBE/EPO.
 - c) Familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren eta ondasunen erantzukizunpeko aitortpena.



- d) Errentaren azkeneko aitorpena (PFEZ), edo, horren ezean, Foru Ogasunak emandako familia-unitateko kide guztien ziurtagiri bana, errentaren aitorpenik egin behar ez dutela dioena.
 - e) Familia-unitateko kide guztien banku-kontu, epeko inposizio, gordailu, inbertsio-fondo, akzio eta abarren ziurtagiriak, bankuek emanak.
 - f) Azken ekitaldi fiskaleko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta zarama eta estolda udal arielen ordainagiri jatorrizkoak.
 - g) Bankuak sinaturiko hirugarrenen orria.
2. Agiri horiei Udalak gehituko die familiaren errolda-agiria eta, behar izanez gero, elkarbizitza-ziurtagiria ere bai.
 3. Halaber, Udalaren gizarte zerbitzuek espedientea izapidetzeko behar duten beste edozein agiri eskatu ahal izango diote eskatzaileari. Eskatutako agiriak aurkezteari uko egiteak, gezurrezko datuak azaltzeak, daturen bat isiltzeak eta diru-laguntza lortzeko edozein iruzurrek berez ekarriko dute diru-laguntza ezestea.
 4. Udalak eskubidea du eskatzaileek adierazitakoa egiaztatzeko. Horretarako, behar dituen datu edo txosten guztiak eskatu ahal izango dizkio beste edozein erakunde publiko edo pribaturi.
 5. Errentak isiltzeak, aitortu gabeko ondasunak edukitzeak, eskatzaileak aitortu baino baliabide gehiago duela oso agerikoa izateak, eskaerak bete gabe aurkezteak eta gezurrezko datuak agertzeak berez ekarriko dute diru-laguntza ezestea, hortik etor daitekeen lege-erantzukizuna alde batera utzi gabe.

8. artikulua. — Aurrekontuko zuzkidura

Diru-laguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

2. DIRU-LAGUNTZAK PORTUGALETEKO FAMILIA UGARIEI**1. artikulua. — Diru-laguntzen xedea**

Arau hauen xedea da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren udal arielak ordaintzeko diru-laguntzak arautzea.

2. artikulua. — Onuradunak

Diru-laguntzok jaso ahal izango dituzte Portugaleten erroldaturikoek, baldin eta datozen artikuluetako eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. — Onuradunek bete beharreko eskakizunak

1. Diru-laguntza hauek eskatzen dituztenean Portugaleteko herritarra izatea, udal erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna izanik.
2. Diru-laguntza hauek eskatzen dituztenean, eskaeran adierazitako bizilekuan bizi izatea. Bizileku hori diru-laguntza ordaintzeko ordainagiritan ere agertu behar da.
3. Familia ugarien titulu ofiziala (indarreko legeriaren arabera eguneratua) duen familia baten ordezkaria izatea.
4. Familia osoaren dirusarrera garbiek, edozein kontzeptutakoek, ez dute 48.784,80 euroko kopurua gaindituko, hau da, familia batek, Dirusarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/08 Legearekin, Etxebizitzako Prestazio Osagarriko 2/2010 eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako 147/2010 Dekretuekin eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuarekin bat etorritik, jaso dezakeen gehienezko zenbatekoaren bikoitza.

**4. artikulua. — Diru-laguntza ezesteko kausak**

1. Zergak eta udal tasak ordaindu ez izatea.
2. Udal diru-laguntzetan edo udal eskumeneko beste kontu batzuetan aurrean iruzurra egin izatea.
3. Oso agerikoa izatea onuradunak nahiko baliabide ekonomikoak dituela, aurkeztutako agirietan azaldu ez bezala.
4. Eskaerak behar bezala ez betetzea, gezurrezko datuak azaltzea edo datuak isiltzea.

5. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa

Arau hauekin bat etorri ematen diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa, diru-laguntzen titularrei edo horien ezkontideei, edo, behar izanez gero, bizi diren etxebizitzaren jabeen bidaltzen zaizkien ordainagiritan agertzen dena izango da. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko diru-laguntza ohiko etxebizitzagatik edo familiaren etxebizitzagatik (hau da, errolda agirietan agertzen denagatik) bakarrik emango da.

Edonola ere, diru-laguntzak aurrekontuaren menpe egongo dira beti eta eskatzen den kopurua urteko aurrekontuaren baino handiagoa bada, hauxe egingo da:

- Lehenengo eta behin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko zenbatekoa gutxitzea; gutxitze hori gehienez diruz laguntzen diren gastu guztien %30koa izango da;
- Hala ere aurrekontua gainditzen bada, lehentasunez emango zaizkie ezarritako irizpideen arabera dirusarrera gutxien duten familia-unitateei.

6. artikulua. — Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, arau hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
2. Eskaerak Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizate Sailera bidaliko dira, eskabide-orria behar bezala beteta. Horrekin batera, arau hauen 7. artikulua zehazten dituen agiriak ere aurkeztu beharko dira.
3. Eskaerak Gizarte Ongizate Sailak baloratuko ditu eta, horren ostean, Udalaren Gobernu batzordeari aurkeztuko dizkio, onar ditzan.
4. Prozedura ebazteko epea gehienez hiru hilabetekoa izango da, Udalak diru-laguntzok eskatzeko ezarri duen epea bukatzen den egunetik hasiz zenbatuta.
5. Ebazteko epe hori igarota, berariazko ebazpenik eman ez bada, ulertuko da diru-laguntza ezetsi dela.

7. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskatzaileak honako agiriak aurkeztuko ditu eskabide-orriarekin batera:
 - a) Eskatzailearen eta, behar izanez gero, familia-unitateko kide guztien NANen fotokopiak (baldin eta NANik badute, noski) edo familia liburuaren fotokopia.
 - b) Behar bezala eguneratutako familia ugariaren titulu ofizialaren fotokopia.
 - c) Familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren ziurtagiriak, nominak, pentsioak, langabezia- prestazioak/sorospenak, DSBE/EPO.
 - d) Errentaren azkeneko aitorpena (PFEZ), edo, horren ezean, Foru Ogasunak emandako familia-unitateko kide guztien ziurtagiri bana, errentaren aitorpenik egin behar ez dutela dioena.
 - e) Azken ekitaldi fiskaleko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiri jatorrizkoa edo horren fotokopia konpultsatua.
 - f) Familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren eta ondasunen erantzukizunpeko adierazpena.
 - g) Banketxeak sinaturiko hirugarrenen orria.



2. Agiri horiei Udalak gehituko die familiaren errolda-agiria eta, behar izanez gero, elkarbizitza-ziurtagiria ere bai.

3. Halaber, Udalaren gizarte zerbitzuek espedientea izapidetzeko behar duten beste edozein agiri eskatu ahal izango diote eskatzaileari. Eskatutako agiriak aurkezteari uko egiteak, gezurrezko datuak azaltzeak, daturen bat isiltzeak eta diru-laguntza lortzeko edozein iruzurrek berez ekarriko dute diru-laguntza ezestea.

4. Udalak eskubidea du eskatzaileek adierazitakoa egiaztatzeko. Horretarako, behar dituen datu edo txosten guztiak eskatu ahal izango dizkio beste edozein erakunde publiko edo pribaturi.

5. Errentak isiltzeak, aitortu gabeko ondasunak edukitzeak, eskatzaileak aitortu baino baliabide gehiago duela oso agerikoa izateak, eskaerak bete gabe aurkezteak eta gezurrezko datuak agertzeak berez ekarriko dute diru-laguntza ezestea, hortik etor daitekeen lege-erantzukizuna alde batera utzi gabe.

8. artikulua. — Aurrekontuko zuzkidura

Diru-laguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

3. GIZARTE ZERBITZUEKIN LANKIDETZAN DIHARDUTEN ENTITATEETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntza hauen bidez, lagundu nahi zaie Udalaren gizarte zerbitzuen jarduna osatzen duten Portugaleteko gizarte ekimeneko erakundeei. Erakunde horiek erantzuna ematen diete gizartetik baztertzeko arriskuan dauden hainbat giza talderen beharrei eta bereziki laguntzen diete adingabeei, minusbaliatu fisiko eta psikikoei, adinekoei, etab.

1. artikulua. — Diru-laguntzen xedea

Arau hauek arautu nahi dituzte Gizarte Ongizate Sailak Portugaleteko behartsuen arazoak aurrezaindu, lagundu eta gizarteratze-jardueretarako eman beharreko diru-laguntzak.

Jarduerok, xede duten giza taldeen arabera sailkatuko ditugu:

- Biztanleria oro har: pobrezia, minusbalioa, gaixoak, etorkinak, etab.
- Adinekoak.
- Haurrak eta familia.

2. artikulua. — Onuradunak

diru-laguntza hauen onuradunak izango dira irabazteko asmorik gabeko entitateak, baldin eta gizarte zerbitzuekin lankidetzan diharduten entitate gisara erregistraturik badaude Bizkaiko Foru Aldundian, egoitza Portugaleten badute edo jarduna Portugaleten garatzen badute.

3. artikulua. — Onuradunek bete beharreko irizpideak

Eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte honako eskakizunak betetzen dituzten entitateek:

1. Legez eraturik egotea.
2. Udalerrian garatu beharreko jarduera ziurtatzea
3. Irabazteko asmorik ez izatea.
4. Helburuak betetzeko egitura egokia edukitzea.
5. Tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.
6. Aurrean jasotako udal diru-laguntzak ziurtatzea.
7. Andre-Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenak aldatu egiten du 1/1997 Legegintza Dekretua, aza-



roaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta zehatzago Dekretu horren 50. artikulua. Horren arabera, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, zigorrak ezartzen duen denboraz, sexu-bazterkeriagatik administrazio edo penal arloetako zigorra izan duten pertsona fisiko zein juridikoez, ez eta Andre-Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak debeku horretaz zigortatukoek ere.

4. artikulua. — Diru-laguntza emateko irizpideak

Diru-laguntza ematerakoan irizpide hauek hartuko dira kontuan, homogeneouski neuriturik:

1. Entitateak proposatzen dituen jardueretan duen esperientzia.
2. Udalaren gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa.
3. Herri zerbitzuek lurraldean burutzen ez dituzten jarduerak egitea.
4. Baztertzeko arriskuan dauden taldeei begirako esku-hartzeak.
5. Euren helburuen artean, generoagatiko desberdintasunak gutxitzeko helburua duten jarduerak.

5. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzak aurrekontuaren menpe egongo dira beti eta eskatzen den kopurua urteko aurrekontuaren baino handiagoa bada, aurrekontua berdintasunez banatuko da balorazio onargarria (irizpideen araberrako puntuen %60) edukiko duten eskatzaileen artean.

6. artikulua. — Eskaerak aurkeztea

Eskaerak, entitatearen legezko ordezkariak sinatuta, Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, arau hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatu beharreko hogeita hamar egun naturaleko epean.

7. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

1. Estatutuen fotokopia.
2. Eskaera egiten den egunean, tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordaindurik dituelako ziurtagiria.
3. Elkartearen jardueri buruzko oroit-idazkia eta ekonomia balantzea.
4. Diruz lagundu beharreko jardueri buruzko oroit-idazkia, eskatzen den kopurua zehazten direlarik.
5. Beste erakunde batzuei eskatutako edo emandako diru-laguntzen zerrenda.
6. Andre-Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela medio, sexu-bazterkeriagatiko zigorra edo zigor espedientea ez duelako adierazpena.
7. Gizarte Ongizate Sailak espedientearen izapidetzeko behar duen beste edozein.

8. artikulua. — Diru-laguntzak ziurtatzea

Entitate onuradunek hurrengo urtearen lehen hilekoan aurkeztu beharko dute egindako jardueri buruzko txostena eta agiri bidez ziurtatu beharko dute nola erabili duten udal diru-laguntza.

Diruz lagundutako proiektuak aldatzeko edo jasotako dirua bestelako jardueretarako erabili ahal izateko, Gizarte Ongizate Sailaren berariazko onarpena beharko dute.

Gastatu gabeko zenbatekoak edo beste proiektu batzuetarako erabilitakoak itzuli egin beharko dizkiote Portugaleteko Udalari.

9. artikulua. — Aurrekontuko zuzkidura

Diru-laguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.



4. UDALAK URGENTZIAZKO DIRU-LAGUNTZAK
PORTUGALETEKO HERRITARREI EMATEA HELBURU DUTELARIK ARRISKU
EDO GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAK AURREZAINDU, SAIHESTU EDO ARINTZEA

Abenduaren 5eko 12/2008 Lege honen xedea hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea.

Legearen 6. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua ezartzen du:

- Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-egoerek pertsoneri eta familieragiten dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.
- Babesgabezia-egoerek eragiten dituzten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.
- Bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi-egoerek pertsoneri eta familiei eragiten dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.

Legearen 16. artikulua, halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikoak zehazten ditu. Izan ere, haien artean aipatu behar ditugu 2.a puntuak zehazten dituenak:

«Prestazioak gizarteratzea edota autonomia ahalbidetzeko izateaz gain larrialdi edo premia sozialeko egoeren ondorio ekonomikoak estaltzeko edo konpontzeko ere badira.»

Oinarri-arauotan arauturiko diru-laguntzak kategoria horren barruan daude.

1. artikulua. — *Xedea*

Arautegi honek helburu du berriaz arautzea urgentziazko diru-laguntza zuzenak ematea 2017. urtean izan diren bazterketa-egoerak aurrezaintzeko eta artatzeko. Halaber, herritarrak eta familiak ere gizarteratu nahi ditu, azaroaren 17ko Diru-Laguntza Orokorren 38/2003 Legearen 22.2 c) eta 28.3 artikuluek dakartenarekin bat etorriz.

Urgentziazko diru-laguntza hauek berriazkoak eta salbuespenezkoak dira asmoa delarik era subsidarioan beharrenda dauden eta beste ekonomia edo zerbitzu-prestazio batzuk jasotzeko aukerarik izan ez dutenei erantzuna ematea. Helburuzkoak, murriztaileak eta subsidiarioak badira. Izan ere, beste zerbitzu edo prestazio baten osagarriak ere izan daitezke.

Herri, gizarte, ekonomia eta gizatasun-mailako interesa ere bada oinarri-arauon arautegiak dakartzan gastu beren-beregizkoei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez dutenen beharri erantzutea. Behar horiei muzin eginda ez artatzeak herritarrak eta familiak kinka larrian jartzea dakar.

Inguruabar hauek urtean behin eta berriro errepika daitezkeelakoan, araudiak berdintasun, objetibotasun, gardentasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak izan behar ditu.

2. artikulua. — *Onuradunen betekizunak*

Ondoko betekizun orokor hauek betetzen dituztenak izango dira onuradun:

- Udalaren gizarte-langile batekin adosturiko gizarteratze-plan bat parte hartzea. Plan horretan prestazioa izapidetzea gizarteratze-prozesuko jardura bat baino ez da izango. Horretarako, gizarte-langileak egoera hori bermatuko du eginiko gizarte-txostenaren bitartez.
- Adin nagusikoa izatea
- Diru-laguntza bakoitzeko berriazko betekizunak betetzea.

3. artikulua. — *Diru-laguntzen onuradunen betebeharrak*

- Adostu gizarte-langilearekin gizarteratzeko plan bat, eskaeraren aurretik.
- Diru-laguntzak helburu jakin batzuetarako dira. Beraz, haietarako izan behar direnez, agiriak aurkeztuta gizarte-zerbitzuei ziritu beharko zaizkie.



- c) Jakinarazi erreferentziako gizarte-langileari edozein aldaketa baldin eta prestazioak jasotzeko betekizunak betetzeari badagokio eta berariazko hauek batez ere:
 - Aldaketak familia-osaketan.
 - Aldaketak prestazioa taxutzeko oinarri izan diren bitartekoetan.
 - Aldaketak ohiko bizitokian.
- d) Behar bezala jaso ez diren prestazioak edo okerreko zenbatekoan jasotakoak itzuli, prozesuak dakarren bezala.
- e) Gizarte-zerbitzuetara bertaratu eta haiekin lankidetzan aritu, hala eskatzen zaie-nean.
- f) Jasotako diru-laguntzak zuritu elikadura-gastuak izan ezik haiek gastua zurikatu beharrik ez baitago.

4. artikulua.— Etxebizitzarako diru-laguntzen modalitateak, zenbatekoak eta betekizunak

A. BIZITOKIRAKO DIRULAGUNTZAK

1. Tipologia

- 1. Hainbat arrazoiengatik ohiko bizitokia utzi behar dutenei premiaz eta aldikada batean ostatu hartzeko gastu beharrezkoak.
- 2. Etxegabetzeak saihesteko eta geldiarazteko gastu beharrezkoak.
- 3. Etxebizitza lortzeko gastuak.

2. Betekizunak

- 1. Portugaleten erroldaturik egotea diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehena-gotik, gutxienez. Salbuespenak hauexek dira: adingabeak euren kargura edukitzea eta emakumeak genero-indarkeriaren biktimak izatea.
- 2. Ez izatea diru-sarrera nahikorik. Hau da, urteko diru-sarrerek ezin dute bikoiztu, iaz, oro har, DBEri zegokion zenbatekoa, bizikidetzta-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta. Diru-laguntza eskatu aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak kontuan hartuko dira.
- 3. Ondasunek ezin dute gaintu iaz, oro har, DBEk ezarritako ondasun-mugaren herena, bizikidetzta-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta.

3. Zenbatekoak:

- 1. 1. eta 2. ataletako gastuak: Gehienez 2.100 euro.
- 2. 3. ataleko gastuak:
 - Alokairua: 2.100 euro.
 - Azpierrementendua /ostatatzea (logela 1): 600 euro.
 - Azpierrementendua /ostatatzea (2 logela): 900 euro.

B. ETXEBIZITZA MANTENTZEKO ETA ZAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. Tipologia

- 1. Etxebizitza mantentzeko, konpontzeko, altzariak erosteko eta zorpetzea ordaintzeko diru-laguntzak.

2. Betekizunak

- 1. Portugaleten erroldaturik egotea diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehena-gotik, gutxienez. Salbuespenak hauexek dira: adingabeak euren kargura edukitzea eta emakumeak genero-indarkeriaren biktimak izatea.
- 2. Ez izatea diru-sarrera nahikorik. Hau da, urteko diru-sarrerek ezin dute bikoiztu, iaz, oro har, DBEri zegokion zenbatekoa, bizikidetzta-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta.



3. Ondasunek ezin dute gainditu iaz, oro har, DBEk ezarritako ondasun-mugaren herena, bizikidetz-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta.

3. *Zenbatekoak*

1. 555 euro mantentze- eta zorpetze-gastuetarako.
2. 925 euro konponketa eta altzarietarako.

5.artikulua.— Gizarteratu eta laneratzeko diru-laguntzak: zenbatekoak eta betekizunak

1. *Tipologia*

1. Gastuak bizikidetz-unitateko adingabeak haurreskoletan eskolaratzeko gurasoak lan-jardueretan badaude edota formakuntza-ikastaroak egiten badituzte edo egiteko badaude.

2. *Betekizunak*

1. Portugaleten erroldaturik egotea diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak hauexek dira: adingabeak euren kargura edukitzea eta emakumeak genero-indarkeriaren biktimak izatea.

2. Ez izatea diru-sarrera nahikorik. Hau da, urteko diru-sarrerek ezin dute bikoiztu, iaz, oro har, DBEri zegokion zenbatekoa, bizikidetz-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta.

3. Ondasunek ezin dute gainditu iaz, oro har, DBEk ezarritako ondasun-mugaren herena, bizikidetz-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta.

3. *Zenbatekoak*

1. Gehienez, 1.350 euro. Gastu errearen %90 gainditu ezinik.

6. artikulua.— Oinarrizko beharrianetarako diru-laguntzak: zenbatekoak eta betekizunak

1. *Tipologia*

1. Elikadura, arropa eta oinarrizko gauzak (tapakiak, haur-gurditxoak eta abar).

2. BUko 25 urtetik beherakoek bere garapen pertsonal zein sozialari begirako jardueretan parte hartzearen ondoriozko gastuak; jarduerok teknikarien balioespen ona izan behar dutelarik.

3. Botikako gastuak, erreabilitazio-tratamenduak, logopedia, protesia, betaurrekoak, audifonoak, haginlaria baldin eta Gizarte Segurantzaren estaldurarik ez badute eta medikuaren txostenaren arabera premia badute.

4. Gastu pertsonalak 18 urtetik gorako herritarrak gizartean sartzeko prozesurako, baldin eta herritar horiek zailtasunak badituzte maila pertsonal edo sozialeko gaitasunei dagokielarik edo, bizitza-dinamismoen ahuleziak jota edo dinamismorik gabe egoteagatik, arazoak baldin badituzte autonomo jokatzeko eta jatorrizko bizikidetz-unitatearen menpeko egoera batean badaude.

2. *Betekizunak*

1. Portugaleten erroldaturik egotea diru-laguntza eskatu baino hilabete lehenagotik gutxienez, salbu eta zaindu beharreko adingabeak badaude eta haurdunak badaude. Berauen errolda-antzinatasuna ez da betekizuna izango baldin eta premia adingabearena bada.

2. Ez izatea diru-sarrera nahikorik. Hau da, urteko diru-sarrerek ezin dute bikoiztu, iaz, oro har, DBEri zegokion zenbatekoa pertsona batentzat.

3. Ondasunek ezin dute gainditu iaz, oro har, DBEk ezarritako ondasun-mugaren herena, bizikidetz-unitateko lagun-kopurua kontuan hartuta.

**3. Zenbatekoak tipologiako**

1. Gehienez 900 euro, gastu errealaren %90 izan daitekeelarik.
2. Gehienez 650 euro, (lau seme edo alaba duten familien kasuan kopurua handiagoa izan daiteke) gastu errealaren %90 gainditu ezinik.
3. Gehienez 900 euro, gastu errealaren %100 izan daitekeelarik.
4. Gehienez 1.200 euro.

7. artikulua. — Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntza zuzenean ematen da, oinarri-arauon betekizunak bete direla behin egiaztaturik, azaroaren 17ko Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c artikulua dioena bete nahian, Lege bereko 28. artikulua dakartzan 2. eta 3. atalei dagokielarik, aldi berean herritarren, gizartearen, ekonomiaren eta gizaldekotasunaren interesak gertatzeagatik.

1. Eskaerak aurkeztu

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuak kudeatuko ditu Udalak ematen dituen urgentziatzko diru-laguntzen eskaerak eta Portugaleteko Udalaren Erregistro sailean aurkeztu beharko dira.

Eskatzaileak eskaera-orriarekin batera behar bezala beteta agiriok auzeratu beharko ditu:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia eta behar izanez gero, familia-unitatekideena ere bai.
- b) Familia-liburuaren fotokopia edo, hori ez bada, zaintza edo tutoretzat frogatzeko egiaztagiria.
- c) Familia-unitatekide guztien diru-sarreraren egiaztagiria (nominak, pentsioak, DBE/EPO langabezia- prestazioak/sorospenak).
- d) Familia-unitatekide guztien diru-sarreraren eta ondasunen erantzukizunpeko adierapena.
- e) Errenta-aitorpenaren fotokopia edo, behar izanez gero, Ogasuneko egiaztagiria zeinetan egin behar ez duela adierazten baita.
- f) Bizikidetzako Unitatekide guztien lan-bizitza.
- g) Udalaren diru-laguntza helbideratzeko banketxeko agiria eta behar izanez gero, banketxeko endosua.
- h) Diru-laguntza behar duten gastuen fakturak edo aurrekontuak.
- i) Gizarte Langileak eskaturiko edozein agiri egiaztatzeke bada eskatzailea premia-egoeran dagoela.

Halaber, administrazio-espeditentia osatze aldera, eskatzaileak auzeraturiko agiriari Portugaleteko Udalak dokumentuok atxikiko dizkie:

- a) Erroldatze eta ibilgailu-agiria.
- b) Behar izanez gero, familia-unitateko kide guztien elkarbizitza-agiria.
- c) Gizarte Zerbitzuek eginiko gizarte-txostena.

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuek onuradunen aitortpenak egiaztatzeke eskubidea izango dute. Alta, behar beste datu zein txosten eska diezaiekete erakunde edo entitate publiko zein pribatuei, interesdunaren beren-beregizko oniritziarekin.

2. Ebazpena

Espeditentia Alkatetzako Dekretuaren bidez ebatziko da.

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuek Udalaren urgentziatzko diru-laguntza hauen onuradunen jarraipena egingo dute egiaztatze aldera diru-laguntzak, aurreikusitako helburuetara egokitu direla.

Diru-laguntzak aurreikusitako helburuetarako direla bermatzeko xedez, salbuespenezko kasuetan eta diru-laguntzaren onuradunak aurrez oniritzia emanda, diru-laguntza



jaulki ahalko zaie zerbitzua ematen dutenei edo hori ez bada, Udalaren Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan diharduten entitate boluntarioei.

Halaber, diru-laguntza ordainketa bakarrean edo ordainketa zatikatu batzuetan jaulki ahalko da.

Onuradunak frogatzen ez badu jasotako diru-laguntza bere helburua betetzeko erabili dela, bidegabeko kobrantzen prozedurari hasiera emanda, diru-laguntza itzuli beharko du. Salbuetsita daude elikadurako gastuak, zuri-ketarik behar ez baitute.

Udalaren urgentziazko diru-laguntzak ezin dira inondik ere konpentsazio, deskontu, atxikipen edo enbargoaren kausa izan.

8. artikulua. — Zuriketa

Diru-laguntzak zurtzeko, emandako diru-laguntzen helburu diren gastuen ordainagiriak edota fakturak aurkeztu beharko dira. Salbuetsita daude elikadurako gastuak, zuri-ketarik behar ez baitute.

Gehienezko epea ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasi eta hiru hilabetekoa izango da ordainketa bakarrekoaren kasuan; ordainketa zatikatuei dagokielarik, epea, aldiz, ordainketa partzialak egiten direneko unetik zenbatzen hasita, 30 egunekoa izango da.

Diru-laguntza ez zurtzeak badakar berekin bidegabeko kobrantzen prozedurari ekitea.

9. artikulua. — Diru-laguntzak ezesteko zioak

1. Zergak eta udal tasak ordaindu ez izana.
2. Udal diru-laguntzetan edo udal eskumeneko beste kontu batzuetan aurrean iruzurra egin izana.
3. Oso agerikoa izatea onuradunak nahiko baliabide ekonomikoak dituela, aurkeztutako agirietan azaldu ez bezala.
4. Eskerak behar bezala ez betetzea, gezurrezko datuak azaltzea edo datuak isiltzea.

10. artikulua. — Jarraipena

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuek diru-laguntza hauen onuradunen jarraipena egingo dute egiaztatze aldera diru-laguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla eta premia sorrarazi zuena konpontzera bideratu direla.

11. artikulua. — Erregimen juridiko aplikagarria

Oinarri-arauon lege-testu arautzaileak hauexek dira: 12/ 2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru-Sarrerak Bermatu eta Gizarteratzeari buruzkoa eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Lege Orokorrari buruzkoa eta bere arautegiak dakarrena, 887/2006 Errege Dekretuak onetsia, uztailaren 21ekoa, publizitate eta lehiaren printzipioei dagokiena albora utzita.

12. artikulua. — Aurrekontuko zuzkidura

Diru-laguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

Portugaleten, 2019ko apirilaren 12an.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo